

Zihurko Eraikuntza ZIHURKO Aseguru Artekaritza, S.A.ren sail bat da, hainbat negozio-arlotan diharduten espezialistek osatzen dutena. Espezializatuta dago aholkularitza ematen sustatzaile publikoei, pribatuei eta/edo eraikitzailei eraikuntzako arriskuen estaldurarako, nola obra zibilean hala bizitegi-erabilerako obretan.

Obra bat aseguratzeak, bere izaera edozein dela ere, azterketa espezializatua eta berezia eskatzen du, ondasun bat eraikitzeak dakartzan arrisku espezifikoak ongi estaliko direla bermatzeko. Ondasun horiek balio berezia hartzen dute eraikuntzan —etxebizitzaren eraikinak, obra zibilak, lurrazpiko obrak, tunelak, zubibideak, eraberritzeak, etab—, eta, oro har, edozein obratan; hortaz, eraikitze fasean ezin dira tratatu eduki komunaren zati gisa.

Horrelako ondasunak arrisku askoren eraginpean daude, hala nola ondasunari emango zaion erabilera, kontratu- eta/edo lege-erantzukizuna, eta eraikuntza prozesuaren zailtasuna. Hori guztia kontuan hartu behar da estaldura egokia diseinatzeko unean.

Zihurko Eraikuntza oso unitate espezializatua da, eraikitzen ari diren ondasunen aseguru motaren edozein alderdiren gaineko aholkularitza emateko, eta munduko entitate liderrekin lankidetzan dihardu horrelako arriskuen estaldurarako.

Ez du axola aseguratu beharreko jardueraren zailtasuna, Zihurko Eraikuntzak zuretzat egiten du lan, egon daitezkeen arriskuen azterketa objektiboa eginda eta konponbide egokiak emanda.

Zer ekarpen egin diezazuke Zihurko Eraikuntzak?

Zihurko Eraikuntzak neurritan eginiko aseguru-konponbideak ematen dizkie bere bezeroei:

- ☆ Aholkularitza, arriskuak kudeatzeko.
- ☆ Bezeroaren ezaugarrien araberrako aseguru-programa zehatza.
- ☆ Eraikuntzako aseguru munduko liderrekin eskusiboki negoziatutako produktuak.
- ☆ Aholkularitza, istripua kudeatzeko.
- ☆ Hamar Urteko Aseguruetan espezialistak.
- ☆ Aholkularitza, Kontrol Teknikorako Erakundeak (KTE) kontratatzeke.

Zein izan daitezke Zihurko Eraikuntzako bezeroak:

- ☆ Udalak.
- ☆ Diputazioak.
- ☆ Autonomia Erkidegoen gobernuak.
- ☆ Eraikuntzako enpresak.
- ☆ Sustatzaile partikularrak.

ZIHURKO Aseguru Artekaritza bat da, beren lurraldeetan lider diren bi finantza erakunderen partaidetza duena: **Kutxa** eta **Caja Vital Kutxa**. Gure bezeroen arretarako bulegoak ditugu Donostian, Gasteizen eta Iruñan.

ZIHURKO 1987. urtean sortutako sozietatea da, eta esperientzia handia du prestigio handiko entitateen nahiz Erakunde Publikoen eraikuntza obrak aseguratzeko.

Zihurko Eraikuntza sortuta, beste pauso bat eman dugu arreta pertsonalizatua eta espezializatua eskatzen duten bezeroei arreta egiteko. Horrela, sustatzaileak edo kontratistak izan eta azpikontratak erabili ala ez, gure bezeroen obrek estaldura zuzena izango dutela bermatuko dugu.



ZIHURKO Aseguru Artekaritza S.A.k bere bezeroei kalitate gorena emateko helburua izan du, beti. Horregatik, hain zuzen, 2000. urtean AENOREK ISO 9001 ziurtagiria eman zion prozesu guztietarako. Hala, ziurtagiri hori lortzen zuen Euskadiko lehen aseguru-artekaritza izan zen.



Informazio gehiagorako:

Zihurko Eraikuntza

Pilotegi bidea 2, 1. - 101 bul.
20018 Donostia

☎ 943 317322 - 📠 943 317879

Zabalgana etorb. 1, 2. - 5 bul.
01015 Gasteiz

☎ 945 140521 - 📠 945 149061

Karlos III. etorb., 36
31003 Iruñea

☎ 635 521685

zihurko@zihurko.es